

**Batxilergoko Sari Bereziak / Premios Extraordinarios de Bachillerato****BALORAZIO-IRIZPIDEAK****BALORAZIO-IRIZPIDE OROKORRAK**

Baloratuko dira erantzun zuzenak, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren egokitasuna eta zuzentasun linguistikoa.

**BALORAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK****Euskara, Gaztelania, Ingeles hizkuntza, Frantses hizkuntza, Aleman hizkuntza**

Baloratuko da batez ere gaiaren ulermen orokorra, gaitasun analitikoa, diziplinarteko konexio gaitasuna (historikoa, filosofikoa, zientifikoa, eta abar), erabilitako aipamenen egokitasuna, argumentuaren xehetasuna, ideien originaltasuna eta aberastasuna eta idazteko adierazpena (idazkera, azaltzeko ordena, sintaxiaren eta ortografiaren egokitasuna eta zuzentasuna).

**Matematika II**

- Planteamendu zuzena baloratuko da, oro har zein atalka.
- Problema eta soluzioa ikustarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak... baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerakoan, ordena, arrazonamendua eta soluzioen prezisioa baloratuko dira.
- Problemen planteamendu eta ebazpenetan, modu berritzaileak baloratuko dira.
- Hizkuntz matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

**Latina II**

- Itzulpena: testuaren ulermena itzulpen literal bat ez egiteko, latinezko morfosintaxiaren ezarpen egokia eta hiztegiaren erabilera zuzena baloratuko dira.
- Sintaxia eta morfologia: osagaien identifikazio zuzena eta beraien funtzio sintaktikoa baloratuko dira, baita perpausen bereizketa eta tipologia ere.
- Lexikoa: proposatutako latinismoen esanahiaren eta egungo erabileraren ulermena baloratuko da, baita etimologiaren ezaguera ere.

**Gizarte Zientziei Aplikaturiko Matematika II**

- Planteamendu zuzena baloratuko da, orokorra zein atalez-atalekoa.
- Problema eta soluzioa ikustarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak... baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerakoan, ordena, arrazonamendua eta soluzioen prezisioa baloratuko dira.
- Problemak planteatzeko eta ebazteko modu berritzaileak baloratuko dira.
- Hizkuntza matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

**Artearen Oinarriak II**

- Artelana une historiko eta sozialaren topagune dela antzematen du.
- Artelanei erreparatuta interpretatzen du arteak izan duen eboluzioa.
- Aztertzen ditu arte-ekoizpenak, bai alderdi estetikutik, bai haien egitekoaren eta erabileraren ikuspegitik.
- Konparatu egiten ditu gizarte eta kultura zenbaitek egindako artelanak eta/edo haien egiteko estiloak eta moduak.
- Arte-ekoizpenen teknikak, prozesuak eta emaitzak aztertzen eta konparatzen ditu.
- Sormen-lan eta ekoizpen estetikoaren artean (komikia-artea, artea-argazkigintza, musika-hitza...) dauden harremanak eta ikusten diren influentziak antzematen eta arrazoitzen ditu.